

Gai berbera, baina prosodia ezberdina ariketa bakoitzean

P7: Irakurketa arina. Enfasia bai, zenbait datuetan, baina neurtua.

P8: Irakurketa geldoa, enfatikoa, entzulearekin elkarrizketa

P7 Albiste laburra (boletina)

Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko gida sortu dute Emankundek eta Eudelek. Tresna horrek oinarritzko jarraibideak eskainiko dizkie udaletako arduradun eta teknikoei, tokiko esku-hartzean erreparazioaren ikuspegia garatzeko. Era berean, euskal udal batzuk azken urteotan abian jartzen ari diren ekimenak jaso ditu, ildo horretan pausoak nola eman daitezkeen erakusteko adibide gisa. Helburua, biktimei eragindako kaltea konpontzeko ekintzak garatzea udalerrietan, eta, era horretan, euren ingurune hurbilean osa daitezen bermatzea.

P8 Sinadura edo magazine baten hasiera

“Arreta onena eskaintzeko egitura sendoak ditugu” hauek dira Izaskun Landaida, Emakunderen zuzendariak, gaur goizean azpimarratu dituen hitzak. Izan ere, indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko gida sortu dute Emankundek eta Eudelek eta hau izango gaur gure saioaren abiapuntu. Bi erakunde hauek bat datoz inplikaturako instantzia guztien arteko koordinazioak duen garrantzia neurtzean, indarkeria matxistaren biktimen errekonferazio integralerako baliabideak gauza daitezen.